BELAUNALDIEN ARTEKO PUBLIKOA

objektuen antzerkia



HARIAK

Oroitzapenen kutxa

Pájaros pintados CREACIÓN TEATRAL · Teatro del CUERVO · Gobierno de Navarra · Nafarroako Gobernua · AGENDA 2030 · Principáu d'Asturies · Xixón · Cultura y Educación · laboral ciudad de la cultura · FACTORÍA CULTURAL DE AVILÉS · Atarrabiako Udala Ayuntamiento de Villava · Olazti Olazagutía



Sinopsia

Puntada artean, guraizeen eta patroien paperaren artean, jostun baten eta bere alabaren istorioa josten da. Jostundegiaren ilunpean, josteko makinaren hotsak markatzen du egunerokoa; alabak behatu eta aitak lan egiten du. Baina pixkanaka, aitaren josturak irekitzen hasten dira eta oroitzapenak, oihal zaharrak bezala, desegiten doaz. Isiltasunen, hutsuneen eta izan zirenaren zatikien artean, oroitzapenen kutxa agertzen da. Denboraren joana neurtzen duen metro bat, apurtuta zirudien hari bat, zimurtutako patroi bat eta josteko zain dagoen amaitu gabeko jantzi bat. Oihalkiek bizia hartzen dute; aita ahazten doan bitartean, alabak gogoratzen ikasten du. Oroitzapenen hariak berriro elkartzen dira, iragana eta oraina josiz. Eta zuri, zer gustatuko litzaizuke ez ahaztea?

Gure oroitzapenen kutxa barruan bizi ahal izango bagina, nora eramango gintuzke? Proiektu hau ahanzturari, oroimenari eta gogoratzen ikasteari buruzko esplorazio bat da. Objektuz beteriko kutxa txiki batek jostundegiaren mundua irekitzen digu. Bertan, aita batek eta alaba batek denboran zehar bidaiatzen dute, oroitzapen ederrenak zein isiluneak zeharkatu, eta esaten ez dena baina gure historiaren parte dena behatzen dute. Belaunaldien arteko publikoarentzako ikuskizun honekin, ikusleak denboraren joanaz eta gure oroimenean gorde nahi dugunaz hausnartzera gonbidatu nahi ditugu.



Jolasa, gogoratzeko tresna: belaunaldien arteko zubia

Hariak-en, jolasa tresna funtsezko bihurtzen da ahanztura egoeran laguntzeko eta oroimena aktibatzeko, oroimena bera zatitzen hasten denean. Gorputzaren, keinuaren eta objektuen bidez, antzezlanak hizkuntza eszeniko irisgarri bat proposatzen du, oroitzapena lantzeko aukera ematen duena, ez soilik hitzaren bidez.

Objektuen antzerkiak leku nagusia hartzen du prozesu honetan. Jostundegiaren elementuek —hariak, oihalak, patroiak, botoiak— oroimenaren pizgarri gisa funtzionatzen dute eta espazio ludiko bat irekitzen dute, non iragana ez den modu literalean berreraikitzen, baizik eta orainetik eraldatu eta berriz esanahitzen den. Jolasaren lurralde horretan, adin eta denbora desberdinak elkartu eta elkarrizketan jar daitezke.

Horrela, Hariak belaunaldien arteko proiektu gisa planteatzen da, jolasa belaunaldien arteko zubi gisa ulertuz. Oroimenak huts egiten duenean, jolasak harremana eusteko, keinuak partekatzeko eta transmisio modu berriak sortzeko aukera ematen du. Eszenan, truke hau aitaren eta alabaren artean gertatzen da; handik kanpo, publikoarengana zabaltzen da.

Proiektua bitartekaritza-dinamikez eta adin guztietako pertsonentzat zuzendutako jarduera parte-hartzaileez osatzen da. Ehungintzako objektuetatik eta lanaren unibertso poetikotik abiatuta, proposamen hauek topagune, elkarrizketa eta sorkuntza partekaturako espazioak sortzen dituzte oroimenaren, oroitzapenaren eta ahanzturaren inguruan, esperientzia eszenikoa emanaldiaz harago zabalduz.



Koprodukzioari buruz

Pájaros Pintados (Nafarroa) konpainiak eta Teatro del Cuervo (Asturias) taldeak berriz ere elkarlanean dihardute lurralde arteko koprodukzio hau gauzatzeko, Shere Khan (Oihanaren beste liburua) (2022) eta La Carpa de Francis (2023) lanekin hasitako lankidetza-ildoari jarraituz. Bi konpainien arteko batasun honek proposamen berritzaileak sortzea du helburu, non poetika bisuala eta dramaturgia garaikidea hamabost urte baino gehiagoko ibilbidea duen konpainia baten esperientziarekin uztartzen diren.

Pájaros Pintados sortzen ari den konpainia bat da, 2022an lankidetzaren bidez bere ibilbidea hasi zuena, eta 2023an bere lehen ekoizpen propioa aurkeztu zuen: Olaiaren lorategia. Objektuen antzerkiko lan honek oroimena eta absentzia aztertzen ditu, eta Fira Tárrega, FETEN, Camino Escena Norte eta Sendaberri bezalako jaialdietan aurkeztu da. Bere ikuspegi eszenikoak samurtasuna, emozioa eta irudiaren eta sinbolismoaren bidez kontatzeko modu berrien sorkuntza lehenesten ditu.

Bestalde, Teatro del Cuervo konpainiak ibilbide sendoa garatu du estatuko eszenan, aintzatespen handiko lanekin, hala nola Carne de Gallina (2002) —Max sarietarako izendatutako koprodukzioa— edo Anónimo (2017), non Sergio Gayolek Aktore Onenaren Oh! saria jaso zuen. Bere lanak antzerki gestualetik hasi eta testu klasikoen esploraziora arte hedatzen dira, begirada garaikide batekin, Todo está allí (2019) lanean bezala —non Victoria Musetti dramaturgoarekin lankidetza hasi zuen— eta Orsai (2021) bere azken bakarkako sorkuntzetako batean.

Bi konpainiek ikuspegi eszeniko partekatua dute: forma garbia, esperimentazioa eta detaileekiko arreta, baita publiko berriekin konektatzeko beharra ere, hizkuntza hurbil eta erakargarri baten bidez. Hariak-ek aliantza artistiko honetan beste urrats bat suposatzen du, sortzen ari den konpainia baten freskotasuna eta sormen-bultzada ibilbide sendo baten sendotasunarekin eta esperientziarekin uztartzea.



Fitxa artistikoa

KOZUZENDARITZA
Victoria Musetti eta Sergio Gayol
Rosa Díaz (La Rouse) -en laguntzarekin

JATORRIZKO IDEIA ETA DRAMATURGIA
Victoria Musetti eta Sergio Gayol

ANTZEZLEAK
Sergio Gayol
Manuela Orbegozo

ZUZENDARITZA LAGUNTZA
Maia Ansa

KANPO BEGIRADA
Ángela Tomé

HIZKUNTZAK
Hitzik gabe (off-eko ahotsarekin)
Hizkuntza guztietara moldagarria

Off-eko ahotsak
Gaztelania: Ángela Tomé
Euskara: Maia Ansa

ITZULPENA
Euskara: Maia Ansa, Saioa Alkaizaren laguntzarekin

MUSIKA KONPOSIZIOA
Carlos Martínez

ESZENOGRAFIA
Jabier Bergara

ARGIZTAPENA
Rafa Echeverz

JANTZIAK
Carmen Fernández

PROIEKZIOAK
Neskaren bideoa: Elaia Camuel
Beste irudiak: proiektuaren eduki propioa eta originala

ARGAZKIAK ETA BIDEOA
Verónica Arizcuren eta Javier Lueje

DISEINU GRAFIKO:
Miss Alien



Fitxa teknikoa

GUTXIENEKO NEURRIAK
7 zabalera x 7 sakonera x 4 altuera

GENEROA
Objektuen antzerkia

ZUZENDUTAKO PUBLIKOA
Publiko guztientzat

IRAUPENA
50 min

BEHAR TEKNIKOAK
Konpainiak informazioa emango du
(Material tekniko guztia eskaintzen du)

FORMATUA
Barrualdea
Formatu txikia (ertainera moldagarria)
Ezohiko espazioetara moldagarria



KONTAKTUA

KONPAINIAK

PÁJAROS PINTADOS
www.pajarospintadoscreacion.com
hola@pajarospintadoscreacion.com
Victoria Álvarez / T. 674 369 111

TEATRO DEL CUERVO
https://teatrodelcuervo.com/
distribucion.teatrodelcuervo@gmail.com
Sergio Gayol / T. 629 83 21 17

Koprodukzioa

Teatro del CUERVO

Pájaros pintados CREACIÓN TEATRAL

Diruz lagunduta

Gobierno de Navarra Nafarroako Gobernua

AGENDA 2030

Principáu d'Asturies

Xixón Cultura y Educación

laboral ciudad de la cultura

FACTORÍA CULTURAL DE AVILÉS

Kolaboratzaileak

Atarrabiako Udala Ayuntamiento de Villava

Olazti Olazagutía


SIGMA


CERRADO


CERRADO